

Hitz batzuk

–Hemen egongo gara betiko.

Gezurra zen.

Gezurra.

Inoiz esandako gezur eztena.

Inoiz esandako gezur gezurrena.

Haritzaren gerizan lo egin nuen,

gezur hura sinestu banu bezala.

Itsasoko olatu artean oihu egin nuen,

gezur hura sinestu banu bezala.

Gereziak jatean irribarre egin nuen,

gezur hura sinestu banu bezala.

Urria iritsi zenean,

haritzaren hostoak lurrera erori ziren,

gezur hartaz nekatuta.

Olatuak izoztu ziren,

gezur hartaz nekatuta.

Gereziak ez ziren gehiago hazi,

gezur hartaz nekatuta.

Nik ere nekea sentitu arren,

indar guztiarekin errepikatzen jarraitu nuen

“hemen egongo gara betiko”,

egia hotzegia bait zen.

Azaroa iritsi zenean,

joaten hasia zen.

Atzera egiteko saiakera egin nuen,

gezurrez eraikitako paradisu hura

mantendu nahian.

Hala ere, joaten jarraitu zuen.

Nire kizkurak hatzekin nahasten zituen,

nire eskua berearekin estaltzen zuen,

nire sorbaldak besoekin inguratzen zituen,

min eman arte,

denborak desagertzera behartu arte.

Abendua iritsi zenean,

haritzak ez zuen hostorik.

Geroz eta handiagoak ziren olatu izoztuek

bertan sartzera gonbidatu ninduten.

Gereziondoa hantxe zegoen, hilda,
gezurrez beteriko egun eder horiek gogoratuz.

Bakarrik nengoen.

Jadanik ez nuen nirekin gezur artean
zoriontsu izateko inor.

Zertarako orain gezur ezti horiek?

Hotza sentitzen hasi nintzen.

Urtarrila iritsi zenean,
eskutitz bat idazten saiatu nintzen.

Kandelen argizariak putzu bat sortu zuen
hitz artean galduta nengoela.

Galduta.

Amorruz beteta bilatu eta bilatu nuen,
baina ez nuen ezer topatu.

Ez bera, ez ni,
ez batera eraiki genuen ametsa.

Egia ere ez nuen topatu,
guztiz desagertu al zen?

Otsaila iritsi zenean,
ur izoztuetan murgildu eta olatu bilakatu nintzen.